

**Argitaletxeko koordinatzailea**  
Aurelio Erdozain  
**Egilea**  
Lur Gallastegi

**Azala eta marrazkiak**  
Alai Zubimendi Idarreta

**Bildumaren diseinua eta maketazioa**  
Luis Alonso

Ale hau erabiltzeko eskubide guztiak erreserbatuta daude. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke. Debehatuta dago testu osoa edo zati bat informatikoki erabiltzea edo hedatzea, aurrez baimen idatzia izan gabe. Zatiaren bat eskaneatu edo fotokopiatzeko, baimena eskatu behar zaio ALAI ARGITALETXEA argitaletxeari (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

## Londonen galduta

© Testua: Lur Gallastegi  
© Marrazkiak: Alai Zubimendi  
© Goazzen: EITB  
© Alai argitaletxea S.L., 2023



Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du.

ALAI ARGITALETXEA, SL  
alai@alai.eus  
**www.alai.eus**  
ISBN: 978-84-125345-6-6  
Lege-gordailua: D 772-2023  
EBn inprimatua - Printed in EU



# Londonen galduta

Lur Gallastegi

Marrazkiak: Alai Zubimendi Idarreta





1

Lainoturik zegoen Londoneko zerua. Hegazkinetik atera eta Victoria Station hiriko geltoki erraldoira iristeko trena hartzera abiatu ziren Basakabiko lagunak, maletak aldean zituztela.

—Milesker Maddi! Zuk konbentzitu ninduzun hemen parte hartzeko —esan zion Unaxek.

Gazteentzako musika jaialdi batera zihoazen. Maddik ikusi zuen iragarkia, eta Unax bideo bat grabatu eta bertara bidaltzeko konbentzitu zuen. Ikaragarri poztu ziren onartuak izan zirela jakin zutenean. Hainbat herrialdetako gazteekin





# LONDON CITY



REGENT'S  
PARK



BRITISH  
MUSEUM

NOTHING  
HILL

SOHO

ST. PAUL  
CATHEDRAL

CONVENT  
GARDEN



HIDE  
PARK

PICADILLY  
CIRCUS

TRAFALGAR  
SQUARE

LONDON  
EYE

BUCKINGHAM  
PALACE



WESTMINSTER  
ABEEY

BIG  
BEN

LAMBETH  
PALACE



NATURAL  
HISTORY  
MUSEUM

12:00

00:00

21:00

LONDON  
BRIDGE



joko zuten eszenatoki berean. Jaialdia Londoneko parkerik famatuenean izango zen, Hyde Park deiturikoan, hain zuzen. Antolatzaileek Ionazko kanpin-dendak jarri zituzten, bertaratutakoek hantxe lo egiteko. Gainontzekoek ere, ez zuten bidaia hura galdu nahi izan. Ordurako, sarrera guztiak agortuta zeuden.

June erdi-zorabiatuta zegoen hegazkinagatik, eta esertzeko toki baten bila hasi zen. Ibaik eta Gontzalek besotik helduta zeramaten.

—Beno ba, lagunok, iritsi gara azkenean! —Garazi ere prest zegoen abentura berri hartarako—. Dena hartu dugu, ezta?

Traste gehiegi izango zirelakoan, denen artean hiru maleta handi eramatea erabaki zuten, bakoitzak berea izan beharrean. Unaxek gitarra zeraman aldean, eta Maddik piano elektriko bat.

—Ondo zaindu lortutako dirua, Garazi! —esan zuen Saioak.

—Lortutako dirua —egin zuen barre Luke nek—. Zertxobait gehiago ere ateratzeko gai



izango ginela uste nuen nik... baina tira, moldatuko gara denon artean, ezta?

Jai bat antolatu zuten Londonerako bidaiaren gastuak arintzeko, baina uste baino diru gutxiago eskuratu zuten.

—Aizue, nik ikaragarritzko pixagalea daukat —esan zuen Zurik.

—Lagunduko zaitut —besotik heldu zion Garazik.

—Neu ere zuekin joango naiz —batu zitzaien Saioa.

—Minutu batzuk geratzen dira gure trenan iristeko —esan zien Maddik—. Denboraz gabiltza oraindik.

Jendetza zebilen tren geltoki hartan. Denak batetik bestera korrika, bakoitza bere nasa topatu nahian.

Libre zeuden komunetara sartu ziren Zuri eta Saioa. Zain geratu zen Garazi. Komunen aldean ate bat zegoela ikusi zuen. EZ SARTU zioen, baina irekitzen saiatu zen. Giltzaz itxi

